

## BASOAK ZEKIEN

Arratsaldeko zortziak ziren eta Erkuden oso urduri zegoen. Gau hartan bere semealabei izugarritzko sekretu bat kontatzea erabaki zuen, bere bisitzaren sekretua.

- Eta Mikel oraindik etorri gabe! Zerbait esan al dizu, Amaia?- Mikel bere seme helduena zen eta Erkudeni asko kezkatzen zitzaion egia esatea.
- Ez dakit, Altsasura iritsi garenean zerbait egin behar duela esan dit, ezagutzen duzu ama, beti bere txorakeriekin dabil.

Mikel txikitatik izan zen mutil berezia, oso azkarra eta geldiezina. Bere haurtzaroan asko gustatzen zitzaion Urdiaingo basora joatea. Hara joaten zen eskolatik ihes egiten zuenean, eta gehienetan Erkudenek Joan behar izaten zuen bere bila, belarritik hartzen zuen eta Mikelek, ondoren, beti zigorraren bat jasotzen zuen.

Garai horiek gogoratzen ari zen Mikel bere basora kotxez zihoan bitartean. Iritsi zen. Bere erlojua begiratu zuen; bai, oraindik denbora zuen afaltzeko ordura arte. Kotxetik jaitsi eta zerbait arraroa ikusi zuen;

- Zer izango da hori? Txabola ala...bai! Zuhaitz horretan txabola bat jarri dute!, hori izango banu hamar urte nituenean...

Txabolaren eskailerak igo zituen. Egia esan nahiko utzita zegoen, zikina eta leihoa puskatuta zeukan. Kristaletatik norbait ikusi zuen egurrezko banku batan eserita zegoela.

- Ez da posible Antxon izatea...bai, bera da! –pentsatu zuen – hogei urte baino gehiago pasa dira baino ez da ia ezer aldatu!.

Mikelek zortzi urte zituenean ezagutu zuen Antxon. Beti bezela han zegoen, basoan, bere lagunekin “borroketan”, gizon hura hurbildu zitzaionean. Egun hartatik aurrera askotan egoten ziren elkarrekin. Mikel oso gustora sentitzen zen bere ondoan, asko hitzegiten zuten bizitzari buruz, batzuetan Antxonek abenturazko istorioak kontatzen zizkion, eta asko ikasi zuen beragandik... egun hura iritsi arte. Mikel egunero gogoratzen zuen egun hartan gertatu zena;

- Mikel, jakingo duzu zer den ona, etorri hona!- Erkuden oso haserre zegoen.

Mikelek bere ama entzundakoan jolasteari utzi zion amarengana joateko baino bat-batean Erkudenen ohiukak ez ziren entzuten. Mikel zuhaitz atzean izkutatu egin zen, bere ama Antxonekin zegoen;

- Ez egin min gehiagorik, ez dut merezi, eta gutxienez nire senarra, mesedez, utz nazazu lasai bizitzen, - ia negarrez zegoen Erkuden.
- Baino nirea da ere, Erkuden, eta hori ezin didazu kendu..- erantzun zion Antxonek.

Mikel beldurtuta atera zen bere lekutik.

- Mikel, goazen etxera,- Erkuden Mikeleri eskutik hartu eta azkar joan egin ziren.

Mikel ez zen berriro Antxonekin egon. Batzuetan Antxon gorrotatzen zuen, zerbait txarra egin nahi ziolako bere amari, baino besteetan bere ama gorrotatzen zuen, Antxoni zerbait oso garrantzitsua kendu omen ziolako.

Azkenik Erkudenek erabaki zuen Mikel gehiago ez itxarotea, eta afaltzen hasi ziren;

- Beno ama, esango diguzu ba, zer duzu hain garrantzitsua kontatzeko?

Erkudenek hotzikara haundi bat sentitu zuen bizkarrean:

- Badakizue bost urte pasa direla zuen aita joan zitzaigunetik, eta ze pozik bizi ginen elkarrekin...

Amaiak eta bere anaiak begiratu zuten elkar asper eginda;

- Bai ama! Jarraitu mesedez!..
- Gizon batekin hasi naiz,... oso gizon ona da, nere adinekoa, baino esan nahi nizuena zera da... zuen aita baino lehen gizon horrekin nengoan. Umeak ginen eta bere familia oso diruduna zen. Haientzat ni ez nintzen bere gustokoa. Gure erlazioa mozteko asmoarekin bidali zuten atzerrian ikastera.
- Beno ama, ba ez zen hainbesterako kontatu behar zeniguna, zu pozik bazaude ni ere pozten naiz.

Baino Erkuden en zegoen lasai. Bat-batean bere jaka hartu zuen;

- Zerbait gogoratu dut, joan behar naiz, berandu egiten ba da joan lasai lo egitera...Agur.

Erkuden basora joan zen, ziur zegoen bere semea han egon behar zela.

Bai, Mikel han zegoen, txabolan lehiotik Antxon begiratzen, bere ama hurbiltzen ikusi zuenean. Antxon altxatu zen eta muxu eman zion Erkudeni. Mikelek ez zuen ezer ulertzen. Eskaileratik jaitsi eta beraiengana hurbildu zen.

- Ama, zer gertatzen da hemen?

Mikelen ama beste semealabei kontatu ziena hasi zen berriro kontatzen.

- Ameriketara bidali nindutenean, ni ez nekien zure ama haurdun zegoela.-esan zuen Antxonek.
- Gero niri azkar ezkondu ninduten, ahoak ixteko,- jarraitu zuen Erkudenek.

Mikelek bere burua lehertu egingo zela sentitu zuen; irudi asko etortzen zitzaizkion denak nahastutak: Antxonekin jolasten zuenean, eta batez ere aspaldian entzundako hitz madarikatu horiek : –“ nerea da ere, Erkuden, eta hori ezin didazu kendu”-. Bat-batean dena ulertu zuen.

- Bai Mikel, zu zara ume hori. <sup>^</sup>